

Mari Jose Lasa

• PERTSONAIA •



Nortasun agiria

Mari Jose Lasa Garin (Garin auzoa, Beasain, Gipuzkoa 1957). Kazetaritza ikasketak egin zituen Leioan (1982). Ondoren, Linguistika Orokorra ikasten jardun zuen Ginebran, urte baten faltan utzi bazuen ere. Izan ere, 1985ean, ezkondu eta New Yorkera joan zen gizonarekin, hau NBEk hara bidalia. Harrezkero, Bagdad, Aman, Beirut, Jordania eta Libanon bizi izan da. Batetik bestera erabili du bizitzak, eta ikuspuntu ezberdinez jabetu da: "Horixe eskaini dit bizitzak, eta ez dago diruz ordaintzerik". Libanon behar du oraintxe, Euskal Herrian urtero egiten duen hilabeteko egonaldia ostean. "Niregatik egingo ez nukeena, gure hiru umeengatik egiten dut". Euskadi Irratiko berriemaile da Ekialde Hurbilean eta, berriemaile baino areago, analista.

«Inurri gara, elefante garela uste badugu ere»

Euskadi Irratian entzuten dugu haren ahotsa. Libanotik jarduten du, Ekialde Hurbileko berriak ematen. Alabaina, ez omen da berriemaile, analista baizik. Hantxe bizitzea du abantaila. Bertatik bertara ezagutzen du inguruko errealtatea, bertan murgil eginda ari da, bertako bezala. “Albiste on gutxi sortzen da gure alderdian”, entzun izan diogu inoiz. Min horixe helarazten digu irрати bidez hitz egiten digunean. Aurrez aurre izan dugunean, berriz, analistarik puruenaren pare jardun du, mundua aztergai.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Elkarriketa galderak helarazi nizkizun...

Gustura erantzungo nizkizuke kazetaritzari buruzko galderak, baina ezin, ez bainaiz kazetari profesionala. Bai, kazetaritza ikasi nuen, baina ez dut kazetari lanik egiten.

Ekialde Hurbileko berriemaile zaitugu Euskadi Irratian.

Gaia bertatik bertara eta oso ondo ezagutzen dudalako. Interes handiz jarraitzen dudalako, euskalduna naizelako... Hamaika arrazoi litezke. Ez naiz pasadizoan dabilen kazetaria, erreportajea egin eta beste norabait abiatzen dena. Ni ez naiz benetako kazetari, nahiz eta berriemaile izan. Analisia da nire lana: bertakoa izan eta egoera jarraitzen duenaren ikuspuntua eskaintzen dut nik.

Zuri arretaz entzuten egoten gara, hitz egokienaren bila nola jarduten duzun borrokan.

Momentu bakoitzean behar dudana hitzaren bila ibiltzen naiz, bai, eta ez da erraza. Gainera, egunean hiruzpalau hizkuntza erabiltzen ditut, hizkuntza batetik bestera jauzika beti, eta beharbada horregatik, are eta zailago zait behar dudana hitz xuxen hori mingainera ekartzea. Ariketa bat da, beti erraza ez dena. Eta kontua ez da zuzentasuna, egokitasuna baizik. Esan nahi dudana zehatz esatea. Eztabaidako momentu bakoitzean behar dudana hitza egoki ekartzea. Horixe da, izan ere, irratiazen magia. Gramatika ezak ezinezko egiten du komunikazioa, dudarik ez horretan. Aldiz, zehaztasun

ezak bihurritu egiten du mezua, faltsutu. Hori oso larria da.

Urte asko daramatzazu atzerrian...

Gizonak Nazio Batuen Erakundean (NBE) egiten du lan. Horregatik egin ditut azken 25 urteak Euskal Herritik kanpo. Lekuan lekuko, bertako bezala bizi gara, ez diplomatikoen gisan. Gure haurrak tokian tokiko eskoletara joaten dira, bertako umeekin nahasirik. Guk ez dugu espainiarrekin edo frantziarrekin bat egiten... Euskaldunak garelako, beharbada, edota jatorri ezberdineko ezkontideak garelako.

Libanon eta munduan, jende asko bizi da bertako jendearekin batera nahastu gabe.

Frantziarrak, adibidez. Beren kultur inperialismoa —edo, esan dezagun, kultur hedapena—, oso-oso handia delako. Frantses eskolak munduan barrena zabalduta daude eta beraientzat posible da beren umeak frantsesez eta inguru frantsesean haztea. Horixe da naturalena, izan ere. Euskaldunok ez dugu egiten, ezin dugulako. Baina gure kulturari diogun atxikimendua ikusita, ahal bagenu egingo genuke, dudarik gabe. Beste alde hori ere ikusi behar da! Gakoa, norberarenari eutsi eta bestearenarekin nahasteko gai izatea da. Japoniarrek egin ohi dutena, alegia.

Horixe aditu nizun irratian egin zenuen aurreko solasaldi batean. Eredu jarri zenizkigun japoniarrek.



Bai. Nahiz eta gerrakoan jipoi handia hartu, txinatarren parean jartzen dute beren burua, oilartuta. Hortik atera kontuak zein indar izango duten! Konparatu Txina eta Japonia... Eta ez dago konparatzerik! Horrek erakusten digu japoniarrek duten kultur indarraren neurria. Bestalde, nik ezagutu ditudanetan, kanpoko kultura batekiko ardura gehien dutenak dira. Harrigarria! Eta haien errespetua, eta galdetzeko gogoal! Ea noiz hasten den euskalduna japonieraz ikasten, haiek guri ematen ari direna bihurtzen! Globalizazio aroan, atzerrian lagun bat izatea, norbait gutaz interesatzea ez da erraza.

"Globalizazioa".

Globalizazioa ez da, bakarrik, txarra; ona ere bada. Japoniarrak hona etorri, gurekiko interesa izan... Hara hor globalizazioaren alde on bat, behingoz! Globalizazioa da euskalduna Japoniara joan, japonieraz ikasi —haiek euskaraz ikasi duten moduan—, eta Euskal Herriaz japonieraz hitz egitea, han. Hori da globalizazioa. Horrelako herriei begiratuta ikasi behar dugu, juzkurik egin gabe, nazionalismoa den, ez den... Horretan sartu gabe, badakigu-eta hori ez dela nazionalismoa, kultur inperialistek erabiltzen dituzten amarrukeriak besterik ez dira kontu horiek.

Ekimen handiko arabiarrek

"Arabiarrek ekimen handikoak dira, eta beharko izan, akabo lirarteke bestela. Eta badute zerbait, agian euskaldunok salbatuko gaituena. Ez dut modestia faltarik izan nahi, baina uste dut diaspora oso garrantzizkoa dela. Libanok jende gehiago dauka diasporan, bertan baino. Baita palestinarrek, armeniarrek eta juduek ere. Denak oso herri biziak dira. Eta, gaur egun, ez dakit euskaldunak oso herri bizia garen".

Uste nuen amarrukeria horiek jendearen baitara heltzen zirela...

Baliteke. Baina orduan, kultur munduan ari denaren lana klixe horien kontra borrokatzea da. Edo, akaso, ez da borrokatzea ere, ez du merezi eta! Zertan dabilen pentsatu, bide bat hartu eta harixe jarraitu, hori egin behar da. Horrela egiten dute alde guztietan. Inertziaren kontra saiatu. Baita hedabideek darabilten inertziaren kontra ere.

Egoerak horrela eskatzen duelako jarduten dute hemengo hedabideek kanpoko miseriak kontatzen, ala horixe delako errazena?

Ekonomia kontua da. Horixe da naturalena. Errazena hartu, irudirik grafikoena erabili... Geuri dagokigunean baino ez diogu gaiari bigarren pentsamendua eskaintzen. Ikus-entzule edo irakurlearengana sentimenduaren bidez heltzen da hedabidea. Hori da errazena, baina hori gaingitu beharra dago. Onartu era jakin horretan lortzen dela erreakzioa, baina ondoren, eskailera maila bat igo eta bigarren pentsamendua egin.

Bigarren pentsamendurik ezean, Mendebaldearen ikuspegia da nagusi, bestelakorik gabe.

Ikuspegiak egon badaude, baina ikuspegi menderatzaileak gainerakoak integratu eta beretu

desager ez dadin, horretaz ari gara eta. Fun-
tsezkoena nahi dugu, kultura ez desagertzea,
ez dadin hil. Horixe da datorren hogeita bost
urte hauetako apustua. Zer behar da horretara-
rako? Ongizate gizartea defendatu gabe inork
ez du lortuko gobernatzea. Inork ez. Ongizate
gizarteari eusteko, berriz, jendea behar dugu,
lan egin dezan, ez dago eta lan egiteko nahi-
koa jenderik.

Kanpotik datozkigu lanera.

Ez dugu izango arrazista izateko luxurik, fabri-
kak martxan izateko kanpotar gehiago behar-
ko dira eta: %15-20 kanpotar. Beraz, ez dira
euskara hiztunak izango. Horrek esan nahi du
gurean, gaztelania ez ezik, hiru-lau erdara
mota izango ditugula. Bi edo hiru kanpotar
mota izango dira hemen, immigrazioa taldeka
gertatzen da eta. Euskal Herrian eroso bizi
ahal direnak etorriko dira: Pakistangoak izango
dira batzuk, marokotarrak beste batzuk, eta
Erdialdeko Amerikakoak hirugarrenak, Ekua-
dorrekoak eta Kolonbiakoak. Gainera, talde
txikiago batzuk izango dira, sektore jakin
batzuetan lan egingo dutenak; argentinarrak,
kasu. Horiek euskaraz ikasten ez badute, ez
baditugu maitasun berezi batekin hartzen, ez
dute euskaraz ikasiko. Espainiolen gaztelania
ikasiko dute, askoz errazago zaie eta... Etorki-
zuneke terminoetan ari naiz. Kanpotar baten-
tzat nahiko zaila da eguneroko bizitza, eta mai-
tasun berezia beharko du halako hizkuntza bat
—euskara, alegia—, ikasteko, jakinik euskara
gabe ere bizi litekeela. Are gutxiago ikasiko du,
hizkuntza horrek berarenganako sinpatiarik ez
baldin badu. Hori da daukagun apustua.
Erronka. Alferrik izango dugu independen-
tzia, alferrik polizia edota armada... Balioko
ote lukete gure helburua lortzeko?

“Maitasun berezia”.

Esate baterako, harrigarria da frantziarrek zein
atxikimendu duten beren hizkuntzarekiko, eta
zein kezka ingelesaren aurrean, frantsesa atze-
ra ari delako... Non uzten gaitu horrek gu,
euskaldunok? Hori da bizi dugun mundua.
Kontziente al gara? Horregatik diot ez dakigu-
la zein momentutan bizi garen. Trenak harra-
patuko gaitu —tren horrek ere harrapatuko
gaitu—, eta, orduan, *adios!* Eta ongizate gizar-
tean, benetan etsenplu emateko moduan
gaude. Baina emango al dugu? Izango al dugu
eskuzabaltasun hori? Geuretzat eskatzen
dugun kultur errespetuaren mailan egongo al
gara? Besteri ezer eskatzeko, sinpatia sortu
behar dugu. Hizkuntza ez da bortxaz ikasten.
Hizkuntza barneko interesez ikasten da. Beste-
la ikasiz gero ez dator onik.

Diozu, geuretzat eskatzen dugun kultur errespe-
tua izatea besteri.



egiten ditu. Hori puskatu behar da. Elefanteak
eta saguak daude. Nork bere tamainaren ara-
bera egin behar du estrategiarik eraginkorrena.
Hori da inportanteena. Alda litezkeen gauzak
ez dira asko, baina txikiak ere baditu aukerak,
eta are gehiago egoera aldakorra denean. Eta,
izan, oraingo egoera oso-oso aldakorra da.
Azelerazioa da ezaugarriarik bistakoa. Den-
bora azeleratu egin da, eta hori gertatzen
denean iraultza egoera da nagusi. Iraultza, ez
hitzaren esanahi politikoan, baizik eta egoera
ikaragarri aldatuko delako denbora laburrean.
Hori ez dute beti handiek baliatzen. Batzuetan,
txikiak hobeto asmatzen dute hartaz baliatzen.
Horretan datza iraultza, askotan. Nire ustez,
badaude bideak, baina ez da behar besteko
ahaleginik egiten. Uste dut jendeak ez duela
bizi gareneko garaia kontzientziarik. Edo
kontzientzia eskasa duela.

Zer esan nahi duzu?

Globalizazioa uste baino askoz lehenagotik
datorrela. Eman dezagun, gure herria. Zein da
Euskal Herriaren apustua? Batak independen-
tzia esango du, besteak elkarbizitza, hurre-
nak... bakea, presoak askatzea, indarkeria...
Nork bere erronka esango du. Nire ustez,
bata zein beste esan, gehienek herri bezala
jarraitzea esan nahi dute, hizkuntza babestu,

Diaspora

"Egiptoarrek diaspora handia daukate, baina galiziarrek Francoren garaian zeukatena bezalakoa. Haien kasuan, emigrazioa eskulan merkea izan zen. Immigrazio beita izan ziren. Botoa emateko garaian balio du, ez besterik. Diaspora diodanean, zer ekimen eta zer harreman dituen, zer irudi duen, zer saltzen duen, zer esportatzeko balio duen esan nahi dut... Hara, era askotako balorazio etikoak egin litezke –oso ezkerrekoak, nahi bada– hemengo kooperatibak Txinan egiten ari diren lanaren inguruan, baina zer irudi ari dira ematen? Hori oso inportantea da, munduak horrela funtzionatzen du eta, ez bestela. Eta funtzionatzen duten gauzak kontuan hartu behar dira, beti. Eskuindarren jarduteko era dela? Bada, sentitzen dut..."

Arazoa ez da erraza. Errespetua da funtsezko hitza. Ezagutu egin beharko genuke kanpotarrek dakartena. Beraiek egunero dakarte. Era-kundeetako erantzunak behar dira, bai, baina erakundeek ez dute gizabanakoa ordezkatzeko. Agintariak nahi duen legea ezarri lezake, baina auzoak ez badio atzerititik etorritakoari egunonik ere opa, ez dugu aurrera egingo.

Frantzia izaniko auto erreketa ditut gogoan.

Ingalaterra eta Frantzia, hara hor bi eredu, biek porrot egin dutenak. Batean, atzeritarrek etxean egiten zuten bizia egin dute bertan, inertziak, eta ez da integrazioa gertatu. Kultur uharteak sortu dituzte, baina ez da arazorik izan, zeren hirietan uharteetan funtzionatzen du jendeak. Tira, hamazazpi milioi bizi diren hiri bat ez da uhartea, artxipelagoa baizik. Beste eredu, Frantziakoa, errepublikarena: denok berdina gara legearen aurrean; ez dago aljeriarrik, ez euskaldunik, ez besterik: frantse eta kito! Hortik aldenduz gero, zalantzan jartzen dira giza eskubideak. Hor kinka ideologikoa dago. Eta, esaterako, hortik hautsi da ezker. Ezkerrak ez daki zer esan horren aurrean. Eskuinak ez du ezer esan beharrik.

Mendian nintzen batean, Irakeko inbasioa hasiberria zen artean. Ezker muturreko ordezkaria parean eta nire kezka, ezkerrak erreakzionatu ez zuelako. Bere erantzuna: "Ezker, zein ezker?". Ba al da eskuin-ezkerrik?

Eskuina badago, bai. Ekosistema eskuinean dagoelako ez da nabarmentzen. Gaur egun mundua hartzen ari den tankera oso egokia da eskuinarentzat. Horregatik ez dago krisi ideologiko sakonik eskuinean, ezkerrean baizik. Horregatik da ezker. Gaur egun krisian ez dagoela dioten ezker, ez da ezker. Zure lagunak zioena, "ezker, zein ezker?", bada, ezkerrik ez dago. Ezker bere buruaren bila dabil oraintxe. Eta ulertzen dut egoera, zailegia, konplexuegia egin delako mundua. Ez da erraza Chavez baten aurrean juzku egitea, baina are zailagoa da amediazin baten aurrean iritzia ematea. Ezkerrak bi aldiz pentsatuko dizu Chavez buruz iritzia eman baino lehen. Amediazinekin ez dute dudarik. Eta, azken finean, oso antzekoak dira biak. Baina ba al dakite oso antzekoak direla? Oso konplexua da. Bestalde, ezkerren lana da konplexutasuna bereganatu eta aztertzea.

Eta lan egitea.

Baina ez dira ari. Ondorioz, desagertu egingo da eta beste zerbait sortuko da. Eta ez da ezer gertatuko. Besterik gabe. Norberaren biziraupena ez da ezkerren helburua, ezta? Denbora hain azkar doanean, aste batean etsenplua eta haren kontra-etsenplua ikusten dituzu. Eta biak ulertzen dituzu... Zein da, orduan, bidea? Zaila da erabakitzen... Supersonikoaren abiadura dara-

AZKEN HITZA

Globalizazioa

"Globalizazioa ez da berria: balearen atzetik Ternuara joatea globalizazioa zen. Munduaren azken fin halabarrezkoa globalizazioa da. Globalizazioak bestearekiko komunikazioa eta harremana hedatu besterik ez du egiten. Eta mundua itxia denez, eta oraingoz kanpora joateko biderik ikasi ez dugunez, normala da batzuk besteekin kontaktuan jarri eta bizitzea. Globalizazioa oso mantso gertatu da mende askoan. Orain, aldiz, zitu bizian goaz. Eta bertigoa ematen du..."



ma gure garaiak. Arazo bat bistaratzen zaiguneko, konponbidean jartzen gareneko, beste bat dugu konpondu beharrekoa. Denbora oso azeleratua da. Zail da epai zintzorik ematea. Epai interesatua ematea, berriz, oso erraza, alde guztietan daude-eta argudioak. Argudio horiek ondoen erabiltzen dituenak irabazten du. Horrek egiten du hedabideetan bidea, horrek marketin eraginkorra. Garaia oso zaila da, baina aldi berean, inoiz eman ez dituen aukerak ematen ditu. Aukera horiek baliatzeko, nork bere neurriaren jabe izan behar du, zein eratako ekimenak gauza litzakeen jakiteko.

Zertan da Aljazira telebistaren arrakasta?

Behar zuelako izan du arrakasta. Kazetarien artean zentsura ikaragarria dago. Gobernuak kontrolatzen dituen hedabideetan, behintzat, zentsura gogorra da. Dena den, jendeak ez ditu gobernuaren hedabideak jarraitzen: guztiek dute satelite bidezko telebista. Arabiar etxe guztietan dago satelitea. Bestalde, ekimen handiko jendea da arabiarra, eta Ekialde Hurbilekoa, are gehiago. Egoera guztiak baliatzeko abildadea dute. Batak katea *pirateatzen* du, agentzia muntatzen du eta auzo osoari saltzen dio seinalea. Kable bat pasatzen dute leihotik leihora eta denek ikusten dute delako satelitezko katea. Libanon horrela da. Beti erdi *extranjis*, erdi *pirateoan*... Beraz, satelitea denek daukate. Aljazirak bi kirol kate ditu: Espainiako futbol liga lehen-lehengoa da, adibidez. Eta globalizazioa dela eta, Aljazirako esatariak bakanetakoak dira Osasuna talde euskalduntzat jotzen, eta Osasuna-Erreala euskaldunen arteko derbi izendatzen dutenak. Gainera, iruzkin politikoak egiten dituzte partida ari den bitartean. Hori ere globalizazioa da.

Ez nekien horrelakorik.

Hemen horretaz ez dakizue ezer. Haiek hainbat dakite guri buruz. Guk, aldiz, ezer ez haien gainean. Larrutik ordain genezake globalizazioaren alderdi hori: guk ez dugu ezer ikasten; haiek bai. Txiki gara, baina ez dakigu txiki garela, ez dugu txiki bezala jokatzeko. Eta txiki bezala jokatzeko ikasi behar dugu. Inurriak elefantearen estrategia ekologikoa balu, ez legoke inurritik. Jakin behar duzu inurria zaren ala elefantea zaren. Ez dago beste erremediorik.

Eta gu inurri gara.

Bai, gu inurri gara, askotan elefante garela uste badugu ere. Zergatik eta, txiki izanik, aberats garelako, Europako Batasunaren estalpean bizitzeko zoria izan dugulako. Gure belaunaldikook ez dakigu zer den zori hori: handi bagina bezala aritzen gara, eta hori oso-oso arriskutsua da. Txikia ezin da aritu handi balitz bezala, ezin da. Txiki gara eta txikien estrategiak baliatu eta asmatu behar ditugu globalizazio garai honetan. ■

Ego kolektiboa

"Gaur egun oso posible da kultura txiki bat desagertzea. Aldi berean, oso momentu egokia da arrazioa dugula erakusteko, kultura txiki bat bizi litekeela, baliabideak izanez gero. UNESCOk berak esaten du: lan eginez erakutsi behar da gaitasun hori. Guri dagokigunez, baliabideak badauzkagu, herri aberatsa gara eta. Gaur egun, Internet dago. Zer egiten dugu diasporarekin? Ba al da benetako *feed back*-ik kanpokoan eta hemengoan artean? Zer jende mota daukagu kanpoan? Uste dut ez dugula behar bezala baloratzen. Atzerrian ikastola egin duena baloratzen dugu, baina ez rodeoan nabarmendu dena, adibidez. Gure ego kolektiboa puzten duena besterik ez dugula baloratzen iruditzen zait".

AQUARIUM



Karlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel: 943 44 00 99
e-posta: aquariumss@aquariumss.com
web orria: www.aquariumss.com

